



-ren kazeta 2024ko URTARRILA/OTSAILA

Elkartearen aktualitatea :

🎉 Ongi etorri 2024rat 🎉

Sarde Sardexka elkarteko lantaldeak **2024 urteberri on bat** opa dizue : Uroostasuna, baita ere sasoineko barazki eta fruituak denentzat ! 2024 ongi hasteko, huna 2023ko bilan bat :

Animazioak :

- 645 oren animazio eskoletan, eta 117 oren sektore sozialean
- Tokiko 16 ekitaldietan parte hartzea
- Tokiko ekoizleekin 4 gaudien antolaketa

Ekintza indarra :

- Kideak : 19 titular et 49 benefiziatzaile
- Langileak : 3 animazio eta proiektu kargudun kontratu mugagabean
- Laguntzaileak : 4 AK kide eta 3 misio kargudun = 133 laguntzaile ordu

Facebook sarea :

- Orrialdean : 262 lagun
- Sare pribatuan : 133 kide



Baratzean, zer berri ?

Jenofak kudeatzen duen jaki lorategi kolektiboaren proiektua diseinatze fasean da gaur egun. Hilabete honetan, Sarde Sardexka eta Itsasuko ikastetxeetako kideen arteko 2. bilkura iragan da. Proiektuaren aurkezpen baten ondotik, ametsa gauza dezagun, mandala holistikoaren metodoaren bidez: meditazio gidatu bati esker, parte hartzaileak gomiatuak ziren etorkizuneko baratzea bisitatzea eta etorkizuneko eraldaketa urratsak ikustera. Horrela askaturiko irudimenak ideia konkretu asko sortzea ahalbidetu du, proiektuaren balioei eta burutu beharreko ekintzei dagokienez. Otsailean, haurren txanda izanen da lorategi kolektibo hori amestea...

Huts egin ez beharreko ekitaldiak :



2024ko Otsailaren 23ko ekitaldia, ortziralez – 20:00 – Itsasun Legamia ogiaren inguruko gaudia

Egitarauan : Urruñako Mendi Lore labearen sortzaile den Guillaume Casauxokinarekin topaketa. Zereal ezberdinen ezagupena, ogia legamiarekin egiteko prozesua, ogi dastaketa. Askaria gauari amaiera emateko.

8,50 € (kideentzat) / 12,50 € (kide ez direnentzat)

Erreserbatzeko : HelloAsso edo e-mailez sarde.sardexka@gmail.com

Iragarki ttipiak :

2024an, Sarde Sardexka sustengatzen dut Euskoei esker !

Eusko erabiltzen duzu? Badakizu, euroak aldatzen dituzuen guzietan, aldatu den kopuruaren % 3a zure hautazko elkarte bati emaiten zaiola ? Sarde Sardexkak laguntza hori jaso ahal izateko, aski da Euskoa duten 30 erabiltzaileek Sarde Sardexka elkarte hautatu izana " % 3ko" emaitza horren onuradun gisa. Horretarako, konekta zaitetz zure eusko espaziora eta klikatu "Nire % 3 Eusko emaitza " eta gero "Nire elkarte aldatu". Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitetz gurekin harremanetan edo kontsultatu ezazu [Eusko Monetaren webgunea](#).



**ZURE ELKARTEA
FINANTZATZEN
DUEN MONETA!**



<https://sardesardexka.weebly.com/>



sarde.sardexka@gmail.com